

SECCION AMENA.

ALEZPANUARTZEN.

—Jaungoikoak egun on
digula ¿zenbana
dira chorišu abek?
—Seina kuarto, Juana.
—¿Seina kuarto diyozu?
or aldamenian
badaude chorišuak,
bai, modu obian.
Merkiak, egiya da
charchuago daude...
—Merkiago... bai, bañan,
charrago ez det uste.



AZKARRA.

<p>—¿Ez aldakik berri bat? —Nik ez, zarrak berri, bañan alai ago ta zerbait on dek, erri. —Aurra nere emaztiak sortu dik goizian. —Izan derilla bada zuben zori onian. —Mutill, zer sortu duben</p>	<p style="font-size: 2em;">}</p>	<p>¿ez dekala asmatzen? —Ez dek erraz izango Ez banak esaten. Alaba. —¿Alaba? ez, ez, ez dakik, ez dakik. —¿Semia? —¡Milla arraye! ¿t'iri nork esan dik?</p>
---	----------------------------------	--

MARCELINO SOROA.